

EGUTEGI TXARTEL BITXIA.— Euskarazko egutegiak goraka datoz azken urteotan, lehen euskarari muxin egiten zioten erakunde, elkarte eta entresak ere bide hortara datoz eta hori ez da txarra gure hizkuntzaren zabalkunderako. Egutegiak ere era askotakoak, mahairako nahiz patrillkarako agenda horietatik hasi eta horman jartzekoak arte bada orain zer hauta. 1987-rakoen arteatik patrillkarako atera den txartel bitxiak harritu gaitu. Zazpi eskualdeen eskudo gainean EUSKAL HERRIA dakarrena, eta eskudo ondoan Orixe zenaren bertsoak. Orixerenak?

Txartelaren bestaldetik, jakina, egutegia bera, gainean honako iragarria duela “ 1987 Euskararik gabe ez da Euskal Herririk”, aspalditik errepikatuz datorren esaldia eta geroan ere errepikatzen

jarraitu beharko duguna. Txartel hau ez dakigu nork argitaratua den. Zabalduek jakingo du, noski. Baina azpian jartzen dituen erakunde eta elkarteak ikusirik, horiek edo horietarikoren batek argitaratua dirudi. Hara zeintzuk diren: Euskaltzaindia, AEK, Euskal Herriaren Euskaraz eta Ikastolen Elkarteak. Ondotik bakoitzaren telefonoak emanaz. Sinatzaile gisa datozen horien ardurapean egin izanen da. Hala dirudi. Baina hala ote?

Bertan datozen bertsoak Orixerenak direla uste ote dute erakunde eta elkarte horiek? Harritzekoa da horiegandik hobeto idatzia ez etortzea, eta harritzekoagoa bertso horien jabetasunaren berri ez jakitea, zeren Orixerenak diren ustean argitaratu dituzten bertso horiek Grazian Adema “Zaldubi” kalonjearenak bai dira.

Gure literaturaz zerbait arduratu den guziek dakite nor zen Zaldubi, 1828an Senperen sortua eta 1907an Baionan zendua.

Badakigu Orixek lapurteraz ere idatzi zuela, baina bertsoen hasierako errepika eta lehen bertsoaz gainera bigarrena ere jaso balute han ikus zezaketen mugazandikoak eginak zirela. Hara hemen berargitaraturik hainbeste aldiz hainbeste kantategitan argia ikusi duten bertsoak:

*Zazpi Eskualherriek bat egin dezagun,
guziak beti-beti gauden gu Eskualdun.*

*Agur eta ohore Eskual-herriari:
Lapurdi, Baxenabar, Zibero gainari;
Bizkai, Nafar, Gipuzko eta Arabari,
Zazpiak bat besarka lot beitez elgarri.*

Honerainokoa da egutegi txartel bitxi horrek dakarrena, baina ikus ondokoa, kantaren nondik norakoaren argigarri:

*Haritz eder bat bada gure mendietan,
Zazpi adarrez dena zabaltzen airetan.
Frantzian, Espainian, bi alderdietan:
Hemen hiru'ta han lau, bat da zazpian.*

Dena dela, egutegi bitxi hori ikusirik zenbaitzuk gure kulturaz duten ahulezia ageri-agerian dago eta hortik ikus daiteke erakunde eta elkarte horietarik zeintzuk ez diren argitaratzaile, era berean susmatzen denez nortzuk diren egile.